

ADINA: 9 urtetik gora

JOLASEN DESKRIBAPENA.

Zailtasun maila handitu ahala, jolasa egiteko denbora murriztuko da. Hiru txapelketa modu daude. Modu bat gainditzean, jolas berriak egiteko aukera eskaintzen zaizu eta; halaber, txapelketaren hurrengo metodoa zabaltzen zaizu. Beraz, jolas guztiak ezagutzeko, lanari gogor ekin beharko diozu.

- 1.- Lau untxiak gune errektangeluarrean kokatu. Eskatzen zaizu una lortzeko, laukitxoak mugitu beharko dituzu, baina alboko laukitxoak hutsik duena soilik mugitu dezakezu.
- 2.- Arretaz begiratu eta irudi berdinaren gainean klik egin.
- 3.- Entzungo duzun soinua segida gogoratu eta erreplikatu egin beharko duzu.
- 4.- Goiko ekuazio geometrikoaren erantzuna behean aurkitu eta egin klik gainean.
- 5.- Esan zein den erakutsiko zaizun zenbakia.
- 6.- Denbora amaitu baino lehen, osatu ezazu 9 zati dituen puzzlea.
- 7.- Bolatxo bat dago, baina non? Zuk esan beharko diguzu.
- 8.- Ezberdintasunak aurkitzen.
- 9.- Goiko ekuazioan jarri behar diren eragiketa ikurrak zeintzuk dira? Zuk aukeratu behean dituzunen artean.
- 10.- Letra zopan eskuman dauden hitzak topatu egin behar dituzu.
- 11.- Ordenadoreak bitxien segida bat pentsatu du eta zuk asmatu egin behar duzu. Eskuma aldean bi zifra agertuko zaizkizu; lehenak kokapen eta kolore zuzena duten bitxien kopurua esango dizu. Kolorea zenbatetan asmatu duzun bigarrenak esango dizu.
- 12.- Karratu magikoa osatu egin behar duzu. Ilara, zutabe eta diagonal bakoitzeko emaitza zein den jarri duzu. Hutsik dauden laukitxoetan zein zenbaki jarri behar da?
- 13.- Goian agertuko zaizkizun laukien artean erlazio bat dago. Batzuetan, erlazioa erraz aurkitu daiteke, beste batzuetan aldiz oso zaila izaten da aurkitzea. Behean dauden irudien artean goian falta dena aurkitu egin beharko duzu.
- 14.- Lau ilaran kokatu behar dituzu, baina ordenadoreak baino lehenago, lortu egingo duzu?



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua

© Goiatz multimedia, S.L.
Tfn: 945230715

CD-ROM

LG: SS-111/2005



GOGARGI

CD-ROM



CD-ROM